

Alegiako Konpositoreak

Toribio Iriondo Sasiain

- ◆ Apaiza, idazlea eta konpositorea.
- ◆ Elgoibarren jaio zen, 1848/04/16an.
- ◆ Elgoibarren hil zen, 1922/09/19an.
- ◆ Donostiako “Euskal-E.”ko eta “Ibaizabal”eko lankide izan zen 1881-1912 bitartean.
- ◆ 1910ean, *Agur erregiña* argitaratu zuen Euskal-Esnalea almanakan.
- ◆ Konposatu zituen obrak:

Ogi zerutik S/A/T/B

Billerako alabak

Agur Erregiña

Andre guztien artean bedekatuena

Informazio gehiago honako helbide honetan jasota dago:

<http://www.euskaltzaindia.net/euskera/dok/51570.pdf>

Pedro Jose Iguain Telleria

- ◆ Alegian jaio zen, 1896/03/17an.
- ◆ Buenos Airesen (Argentina) hil zen, 1979/10/26an.
- ◆ 1911n amaitu zituen ikasketak Bilbon eta Tolosako kontserbatoriora joan zen musika ikastera.
- ◆ Zuen ahots ona kontuan hartuta, Bilboko Santos Juan parrokiako koruko bakarlaria izan zen.
- ◆ Altzoko organista izan zen eta, 1913az geroztik, Ataungoa.
- ◆ 1924an, Beasaingo musika bandako zuzendari eta elizako organista izendatu zuten.
- ◆ “Asociación de Directores de Banda Vasco-Navarra” bultzatu zuen, eta Loinaz abesbatza sortu zuen. 1948an, orfeoien txapelketa batean lehen saria irabazi zuten Donostian.
- ◆ 1950ean, Argentinara joan zen. Buenos Airesko Piedad parrokiako organista izendatu zuten, eta, hildakoan, bere seme Nikok jarraitu zuen jotzen.
- ◆ Buenos Airesko gizonezkoen “Hospital Psiquiátrico”ari lagundu zion kontzertuak emanez.
- ◆ 1949an, omenaldia egin zitzaion Alegian.
- ◆ Konposatu zituen obrak:

Stabat Mater T/T/Br/B

Himno a san Martín de Loinaz Ti/T/B

Deun Mikel Ereserkia T/T/Br/B

Hac est corpus meum Co/órg

Martín Fierro = Matxin Burdin V/gui

El Moreno = Beltxarana V/gui

Picardia = Biurria V/gui

Final = Azkena V/gui

Joxe Prantxisko Agiriano "Tripoxo" S/A/T/Br/B

Sagu-Katu S/S/T/Br/B

Iguriako errota S/A/T/Br/B

Erri miña = Nostalgia S/S/S/T/Br/B

Lau atso S/S/A/T/T/Br/B

Nana de San Martín S/A/T/Br/B

Gau ezkila = Nocturno p

Txintxarri erri p

Txintxarri erriko abestia vn/vn/va/vc/cb/p

Nere erriko gau-ezkila vn/vn/va/vc/cb/p

Euzko Abendaren Ereserkia Co/cl/sax/tpt/ci/tbn/bd/b/bat

Gernikako arbola Bnd

Iturriak: ERESBIL, Auñamendi entziklopedia, Buenos Airestik bidalitako biografia, Txintxarri Abesbatza eta Josetxo Zufiarreren “Beasaingo musikak” liburua.

Pedro Jose Iguain Telleriaren hiru seme ere konpositoreak izan dira:

▪ **Nicomedes Iguain Azurza (Niko)**

- o Beasainen jaio zen, 1927/05/17an.
- o Buenos Airesen hil zen, 2005/02/28an.
- o Hainbat obra idatzi zituen:

Give me a lesson in love = Dame una lección de amor V/p
 Hold me!, love me!, want me! = Abrázame, ámame, quíereme V/p
 How about that ! = ¿ Qué te parece ! V/p
 I ask not = Yo no pido V/p
 In a sidewalk cafe = Terraza - cafe V/p
 Magic moments = Momentos mágicos V/p

Take back my heart = Devuélveme mi corazón V/p
 What luck ! = Qué suerte V/p
 Who are you = ¿ Quién eres ? V/p
 Why did you misunderstand = ¿ Por qué me comprendes mal ? V/p
 You're special = Tu eres especial V/p

▪ **Gurutz Iguain Azurza**

- o Beasainen jaio zen, 1932/04/22an.
- o Montevideon hil zen, 2005/03/09an.
- o Hainbat obra idatzi zituen:

Alleluia S/A/T/B
 Aurkeriak S/A/T/B
 Aurtxo txikia S/A/T/B
 Beti maite S/A/T/B
 Bi eusko abesti S/A/T/B
 Bolon bat eta bolon bi S/A/T/B

Erruki S/A/T/B
 Iosu ori jaio - izotzetan elurretan S/A/T/B
 Jaungoikoaren bildotsa S/A/T/B
 O magnum mysterium Co/órg
 Oi aberri lastana S/A/T/B
 Santu S/A/T/B

▪ **Jesus Iguain Azurza (Ikus Abaltzisketako organistak)**

- o Beasainen jaio zen, 1928ko azaroaren 2an.
- o Donostian hil zen, 2005/01/28an.
- o Elizako hainbat kanturen moldaketak egin zituen.

Vicente Aramburu Alberdi

- Zizurkilen jaio zen, 1902an.
- Irunen hil zen, 1995/11/04an.
- Alegiako apaiza izan zen.
- Kantu erlijiosoak bildu eta harmonizatu zituen eta horien bilduma argitaratu zuen “Eliz-Abesti bilduma (Colección de cantos religiosos)” (1950ean).
- “Jesukristoren bizitza (Vida de Jesucristo)” ere idatzi zuen (1987an).
- Alegian lan handia egin zuen gazteei musika irakasten.

Lukas Guridi Echaniz

- ♦ Apaiza, konpositorea, organista, koru-zuzendaria, antzerki-zuzendaria.
- ♦ Azpeitian jaio zen, 1906/10/17an.
- ♦ Loiolan (Azpeitia) hil zen, 1960/11/16an.
- ♦ Leon Egigurenen elizako koruan hasi zen musikarekin harremanetan.
- ♦ Comillasen hasi zen apaiz ikasketak egiten 11 urterekin. 20 urterekin unibertsitateko Schola Cantorum abesbatza zuzentzen zuen.
- ♦ 1930eko uztailaren 15ean ordenatu zen apaiz.
- ♦ Payuetan (Araban) lehenik, Ermuan gero eta Donostian (jesuitetan) egon zen apaiz eta organista lanak betetzen. Donostiako Radio San Sebastian irratan abesti euskaldunei zuzendutako irratsaioa egiten zuen.
- ♦ Gerra garaian, espetxea ere ezagutu zuen, Azpeitian lehenengo eta Iruñean ondoren. Hori amaitutakoan, Alegiara etorri zen.
- ♦ Musika-lan handiena Alegian egin zuen. Garai hartako parrokiako koruaren kargua hartu zuen eta gaur Txintxarri den abesbatzara iristeko bultzada garrantzitsua eman zuen.
- ♦ Lukas Guridiri buruz idatzitako pasarteak:

“...por derecho propio entendemos debe ocupar el álbum de los músicos azpeitiarras”. (José Ignacio Alberdi).

“Como músico destacó muchísimo. Ganó varios concursos; el primero, con un villancico, apenas ordenado sacerdote; después, otros varios, entre los que merece citarse el de Villarreal de Urrechua, con motivo del homenaje a José María Iparraguirre.” (Juan Martín Zuriarrain, Pbro.).

“Apaiz bezala, eredu eta itzal handiko pertsona izan zen, 40ko hamarkadan, pastoral aldetik eta gazteekin lan ikusgarria egin zuelarik. Baina bere gustuko lana musika zen. Musikagile bikaina, pieza asko utzi zuen ondorengoentzat; esate baterako, Alegiako herriari eskainitako “Flos Carmeli” meza. Horren “Gloria” Txintxarri Abesbatzak Karmen egunean abesten du” (Jose Gastesi).

♦ Konposatu zituen obrak:

<i>Canción al sagrado Corazón</i>	<i>V/órg</i>	<i>Ave Maris Stella</i>	<i>T/T/B/órg</i>
<i>O, Jesu mi dulcissime</i>	<i>Br/órg</i>	<i>Salve infantil en honor de Nuestra Señora de Olaz</i>	
<i>A la Virgen</i>	<i>Tsolo/órg</i>	<i>Ti/Ti/A/órg</i>	
<i>¡Feliz portal! = ¡Oi Betleem!</i>	<i>S/A/T/B</i>	<i>Salve Pater para las fiestas de San José</i>	
<i>¡Oh, dulce Belén!</i>	<i>T/T/Br/B</i>	<i>Co/T/T/B/órg</i>	
<i>¡Oi Betleem!</i>	<i>S/A/T/B</i>	<i>Tota Pulchra</i>	<i>Tsolo/T/T/B/órg</i>
<i>Ronda de Santa Agueda</i>	<i>Tsolo/T/T/Br/B</i>	<i>Bonbolontena</i>	<i>V/p</i>
<i>Misa Flos Carmeli</i>	<i>T/T/B/órg</i>	<i>Mendekoste festetan</i>	<i>T/T/B</i>
<i>Libera me, Domine</i>	<i>A/T/B/órg</i>	<i>¿Noiz?</i>	<i>Ti/Ti/A</i>
<i>Tantum ergo</i>	<i>T/T/B/órg</i>	<i>Mirentxu</i>	<i>VV</i>
<i>Cuatro canciones para la Comunión</i>	<i>Co/órg</i>	<i>Itxarkundia</i>	<i>T/T/B</i>
<i>O Sacrum</i>	<i>VV/órg</i>	<i>Txakolin</i>	<i>Ti/A/T/B</i>
<i>Memento Mei</i>	<i>T/T/B/órg</i>	<i>Iru Damatxo</i>	<i>Ti/A/T/B</i>

Iturriak: ERESBIL, Jose Ignacio Alberdi, Jose Gastesiren “Txintxarri Abesbatza 1960-2000” liburua.

German Intxausti Arregi

- ♦ Legorretan jaio zen, 1926/08/21ean.
- ♦ Alegian hil zen, 2004/02/12an.
- ♦ Eskolapioetan ikasi zuen: merkataritza, Marrazketa (Artes y Oficios), frantsesa.
- ♦ Txistua jotzen aitarekin eta Isidro Ansorenarekin ikasi zuen.
- ♦ Txistua, pianoa, dultzaina, okarina... jotzen zituen.
- ♦ Afrikan egon zen soldadu, Lazkao Txikirekin batera.
- ♦ Denda-taberna zuten etxean eta han egiten zuen lana.
- ♦ Argazkilaria ere bazen, eta ezkontza eta ospakizun askotan izaten zen txistua jotzen eta argazkiak egiten.
- ♦ Aitaren bideari jarraitu zion kudeaketa lanetan eta neurketa eta kubikazioak kalkulatzeko.
- ♦ Herriz herri ere, aita bezala ibiltzen zen. Amezketan eta Abisturren 60 bat urtetan ibiliko zen.
- ♦ Amezketako batzuei txistua irakatsi zien, baina ez zuten jarraitu.

Idatzi zituen obrak:

<i>Ostegunekoa</i>	<i>tx/tx/sb</i>	<i>Hondarribia</i>	<i>tx/tx/sb</i>
<i>Koldo</i>	<i>tx/tx/sb</i>	<i>Aldaba txiki</i>	<i>tx/tx/sb</i>
<i>Fa-txiki</i>	<i>tx/tx/sb</i>	<i>Oria</i>	<i>tx/tx/sb</i>
<i>Mirentxu</i>	<i>tx/tx/sb</i>	<i>Udazkenean</i>	<i>tx/tx/sb</i>
<i>Eduene</i>	<i>tx/tx/sb</i>	<i>Intxurre</i>	<i>tx/tx/sb</i>
<i>Udaletakoa</i>	<i>tx/tx/sb</i>	<i>Pipiri</i>	<i>tx/tx/sb</i>
<i>Mañoli</i>	<i>tx/tx/sb</i>	<i>Miel txiki</i>	<i>tx/tx/sb</i>
<i>Ikak</i>	<i>tx/tx/sb</i>	<i>Bitxistu danbolaria</i>	<i>tx/tx/sb</i>
<i>Aloñatik etxeruntz</i>	<i>tx/tx/sb</i>	<i>Txintarriaren hileta [arreglo]</i>	<i>tx/tx/sb/at</i>

Zortzikoa [arreglo] tx/tx/sb/at
Oria [arreglo] tx/tx/sb/at
Aldaba txiki [arreglo] tx/tx/sb/at
Pipiri [arreglo] tx/tx/sb/at

Miel txiki [arreglo] tx/tx/sb/at
Kimu berri [arreglo] tx/tx/sb/at
Xamot [arreglo] tx/tx/sb/at

Iturriak: Arreba, Ixiar Intxausti; ERESBIL.

Andoni Zubillaga Lopetegi

- Alegian jaio zen, 1967/10/08an.
- Batxilerra ikasi zuen eta gero musikako ikasketak egin zituen.
 - Alegian Salestarretan hasi zen solfeoa ikasten, eta Juan Ignazio Ugartemendiarekin jarraitu zuen.
 - Akordeoia jotzen Mikel Bikondoarekin ikasi zuen eta harmonia ere bai. Mikelen orkestrako partaide izan zen 92-96 tartean.
 - Donostiako kontserbatorioan kontrapuntua eta konposizioa ikasi zituen.
- Alegian musikako klaseak ematen aritu zen.
- Altsasuko Musika Eskolan 9 urte daramatza irakasten, eta Lizarrakoan ere hasi da.
- Altsasun akordeoi orkestra sortu zuen eta Torrelavegako lehiaketan taldeak lehen saria irabazi zuen eta bikoteka egiten den sariketan ere lehenengoak izan ziren.
- Honako hauek dira egin dituen obrak:
 - FANTASIA: Pianoa eta orkestrarentzat. Luxenburgoko orkestrarentzat egina.
 - BANDARENTZAT:
 - TXINTXARRI: Kalejira (Tolosako lehiaketan entzulearen sari berezia 2002.ean).
 - PAUSOKA: Pasodoblea.
 - Tolosako bandarentzat hainbat moldaketa.
 - ZALANTZAK: Fantasia metalezko boskotearentzat.
 - ADAGIO: flauta eta sokazko orkestra.
 - SOKAZKO LAUKOTEarentzat:
 - FANTASIA.
 - RAPSODIA Nº 1.
 - LEMA.
 - PRELUDIOA.
 - BARROKO DANTZA.
 - KAPRITXOA.
 - TIPITAPA: Rapsodia (Txistua, 2 klarinete, fagota eta perkusioa).
 - Durangoko BERZIZTU txistuzale elkartearentzat egina.
 - AKORDEOIARENTZAT:
 - HAZTAMUKA: Fantasia. Kastelfidardoko Nazioarteko Konposizio lehiaketan irabazi zuen obra (Italian, 2004).
 - FANTASIA: Donostiako Kontserbatoriorako egina.
 - TEMA Y VARIACIÓN 1-2-3.
 - EUSKAL SUITA.
 - Fandangoak, kalejirak, moldaketak...
 - HOSTO EHIARRA: Lied (Ahotsa eta pianoa).
 - AMETS: Koruarentzat.
 - EUSKAL MEZA bat.
 - 2008ko "Nafarroa Oinez"erako musika egin du Iñigo Goikoetxearekin batera.
(www.vimeo.com/1188163)

Aitor Iraola Galarza

- Alegian jaio zen, 1992/06/12an.
- Ikasketak egiten ari da.
- Musika:
 - Solfeoa, pianoa eta harmonia Tolosako Musika Eskolan ikasi zituen, Jesus M^a Esnaolarekin eta Urruzolarekin.
 - Alegiako Musika Eskolan ere ikasi zuen pianoa.
 - Txintxarri Txiki abesbatzako kidea da, 2002az geroztik. Abesbatzaren pianista.

- o Txintzarri abesbatzako kidea da 2007az geroztik.
- o Loatzo Musika eskolarekin hainbat kontzertu eman ditu, Alegian, Ibarra...
- o Obra batzuk konposatu ditu:
 - “Beyond”. 2007 urtearen hasieran konposatua eta Musika Eskolan lehen aldiz emana.
 - “Ibai ertzeko zuhaitza”. 2007an konposatua eta Txintzarri Txiki abesbatzak lehen aldiz emana.
 - Iragana.
 - Oroitzak.
 - Zelaiean.
 - ...